Lizitatzaileek MEMORIA TEKNIKOAN adieraziko dute, xehetasun osoz, antolaketa-proiektua, baliabide materialak eta pertsonala, gutxienez ondorengo atal hauek garatuz:

a) Bildutako olioaren egokitzapen eta biltegiratze plantaren kokapena, helbide zehatza adierziz.
b) Bildutako sukaldeko olio erabiliaren egokitzapena egingo den plantak dituen instaluntzak eta makineriaren deskribapen zorrotza, planoak eta argazkiak eta abar ere aurkeztuz.
c) Sukaldeko olio erabiliaren egokitzapen-ahalmena (kg/urteko). Sukaldeko olioa prozesatu ondoren biltegiratzeko ahalmena.
d) Olioa egokitzeko prozesu guztia sekuentzialki deskribatzea, pausoz pauso.
e) Bildutako olioaren pisaketa-sistemaren deskribapena.
f) Upel metalikoen garbiketa lañen deskribapena.
g) Olioa ontziratzeko erabilitako plastizkoko. beirazko (eta abar) ontzien kudeaketaren deskribapena, kudeatzaileak emandako agiriak aurkeztuz.
h) Olio edukiontziaren barruan edo bere inguruan utzitako eskatu ez diren beste hondakin batzuen kudeaketaren deskribapena, kudeatzaileak emandako agiriak aurkeztuz.
i) Olioaren dekantazio eta iragazketan sortutako ur zikinen eta hondakin organikoen kudeaketaren deskribapena, kudeatzaileak emandako agiriak aurkeztuz.
j) Plantaren masen balantzea.
k) Olio behin egokitu eta gero lizitatzaileak bioerregaia (biodiesela) fabrikatzeko entregatzea aurreikusten duen/dituen planta/k.

Mankomunitateko zerbitzu teknikoek, beharrezkotzat jotzen badute, bildutako sukaldeko olioa egokitu eta biltegiratuko duen planta edozein momentutan ikusteko aukera izango dute ba¡ kontratazio-espedientea izapidatzen den bitartean bai zerbitzua kontratatu eta gero ere.

6. OLIO-EDUKIONTZIEN ETA ALDAMENAREN GARBIKETA

6.1. Xedea:

Olio-edukiontzien eta aldamenaren egoera higieniko-sanitario egokia eta itxura estetiko ona ziurtatzeko, kontratistaren betebeharra izango da bidé publikoan jarritako olio-edukiontzien eta aldamenaren garbiketa eta desinfekzio zorrotza egitea.

6.2. Garbiketa non egin:

Edukiontzien eta aldamenaren programatutako garbiketa lanak "bertan" egingo dirá, hau da, edukiontziak kokatzen diren lekuan bertan. Horretarako kontratistak neurri egokiak hartuko ditu, garbiketa-lanen ondorioz ondasunei edo pertsonei eragozpenik ez eragiteko.

Olio-edukiontzi barrutik ateratako upel metalikoen garbiketa-lanak ordea, nahitnahaiez kontratistaren instalazio finkoetan egingo dirá. Upel hauek hustutzen diren bakoitzeak garbituko dirá.

6.3. Edukontzien eta aldamenaren garbiketa-lanen deskribapena:

Edukiontzien garbiketa ondorengo prozedura orokorra jarraituz egingo da:

1º. Lehenik, edukiontzian itsatsita dagoen edozein elementu arrotz (kartelak, zinta itsaskorrak, pegatinak eta abar) kenduko da.
2º. Pintadak eta graffitiak kenduko dirá.
3º. Edukiontzi barruan egon daitezkeen orbanak eta zikinkeria kenduko da.
4º. Ondoren, produktu garbigarri eraginkor bat aplikatuko da edukiontziaren kanpoko azaleran. Garbigarria fabrikatzaileak gomendatutako kontzentrazioaren arabera dosifikatuko da, biodegradagarria izango da % 90ean gutxienez, botere hezegarri handiko tentsioaktiboak eta koipekiaren emultsionatzailea edukiko ditu, baita uraren gogortasunaren arintzaileak ere, eta apar gutxi sortuko du. Fabrikatzaileak gomendatutako denboran utziko da bere lana egiten. Proposatutako garbitzaileak ez du edukiontziaren azalera ez eta informazio-itsasgarriak kaltetuko. Legez baimendutako produktuak erabiliko dirá beti, bere segurtasun-fitxa betez.
5º. Jarraian, ur hotza edo beroa erabiliko da edukiontziaren kanpoko azalera zorrozki garbitzeko. Horretarako, eskuzko goi-presioko lantza edo pistola bat erabiliko da.
6º. Bukatzeko, kaltatutako bereizgarriak jarriko dirá.

Olio-edukiontzia garbitu ondoren, edukiontziaren aldamena garbituko da eta eraginen balego edukiontziaren eta normalean bilketa ibilgailuak aparkatzen duen artean dagoen ibilbidera zabalduko da:

- Hasteko, zonaldea erratzaz garbitu.
- Zoruan egon daitezkeen olio-orbanak kentzeko produktu koipegabetzaileak aplikatu.
- Produktu xurgatzaileak erabiliz olioa bildu.
- Zonaldea berriro erratzaz garbitu.
- Amaitzeko, goi-presioko pistolaz zonaldea garbitu.

Goian deskribatutako prozedura jarraituz garbiketa-lanak egiteko, kontratistak garbiketako furgoi bat jarriko du horretarako behar dituen ekipamendu guztiekin.

Garbiketa-lanak egiteko mankomunitatearen zerbitzu teknikoek aldez aurretik baimendutako prozedurak eta garbigarri kimikoak erabiliko dirá, eta lortzen den garbiketa-mailaren arabera, agindu eta jarraibide zehatzak agindu ahal izango dituzte, eta agindu eta jarraibide horiek nahitaez beteko ditu kontratistak. Horretarako, zerbitzua ematen hasi aurretik, kontratistak erakusketa praktiko bat egingo du, edukiontzi kopuru mugatu batekin, berak proposatutako garbiketa-sistemaren eraginkortasuna baloratzeko.

6.4. Garbiketa-maiztasuna:

Olio-edukiontziak eta aldamena gutxienez bi hilabetean behin garbituko dira.

Ezarritako maiztasunaz gain, noizbehinka, beharrezkoa bada, mankomunitateko Zerbitzu teknikoen aginduz, kontratistak programatutako garbitasuen arteko epe barruan zikinkeria nabaria, pintadak, kartelak etab. duten olio-edukiontzien edota aldamenaren garbiketa egin beharko du, eta horrek ez du kontratuko prezioaren igoerarik ekarriko.

6.5. Garbiketako egutegia eta orduteaia:

Bizitegi-auzoetan kokatutako edukiontzien garbike-lanak egunez egingo dirá, inoiz ez goizeko 8.00ak baino lehen. ezta 22.00ak baino beranduago ere, herritarrei arazorik ez sortzeko. Garbiguneen kasuan, hauek irekita dauden egun eta ordutegi barruan egingo da.

Lizitatzaileek euren eskaintzetan mankomunitatea osatzen duten udalerrien ezaugarrietara eta proposatutako garbiketa sistemara hobeto egokitzen diren garbiketa egiteko egunak eta ordutegiak proposatuko dituzte, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Zerbitzu teknikoek aldatzeko eta kontratistak aldaketak onartzeko duen obligazioaren kaltetan gabe.

6.6. Garbiketa zerbitzuaren kontrola:

Garbiketako lan guztiak, programatutakoak eta programatu gabekoak, dokumentalki erregistratuko dirá. Hilero kontratistak mankomunitateari txostena bidaliko dio egindako garbiketako lan guztiak zehaztuz, kontratatutako lanak frogatzeko.

6.7. Garbiketa zerbitzuaren antolaketa:

Enpresa lizitatzaileei dagokie olio-edukiontzien eta aldamenaren garbiketa zerbitzua emateko sistemarik eragingorrena proposatzea, lizitatzaile bakoitzak egokien deritzan baliabide materialekin eta pertsonalarekin.

Lizitatzaileek MEMORIA TEKNIKOAN adieraziko dute, xehetasun osoz, antolaketa-proiektua, baliabide mateñalak eta pertsonala, gutxienez ondorengo atal hauek garatuz:

a) Erabiliko dituen garbiketa ekipoaren deskribapen zehatza, ibilgailu eta pertsonalari dagokionean:
   Garbiketako furgoiaren ezaugarri teknikoen deskribapena.
   Garbiketa zerbitzuan arituko den pertsonalaren deskribapena eta emandako lanak.
b) Erabiliko diren produktuen (garbitzaileak, koipegabetzaileak, xurgatzaileak...), fitxa teknikoa eta segurtasun fitxa aurkeztuko dirá.
c) Proposatutako baliabideekin edukiontzien eta aldamenaren garbiketa ñola egingo den deskribapen zorrotza.

d) Garbiketako ibilbideak behar bezala zurituta, bakoitzean ondorengo zehaztuz:
   - Garbiketako ekipoa osatzen duten ibilgailua eta pertsonala.
   - Jarraituko duen ibilbidea.
     Egingo dituen kilometroak.
     Edukiontzi bakoitza eta aldamena garbitzeko aurreikusten den denbora.
   - Garbiketako ibilbide bakoitza zein ordutan hasi eta zein ordutan bukatuko den.
   - Ibilbide bakoitzean guztira zenbat edukiontzi garbitzea aurreikusten den, zein udalerritan dauden zehaztuz.

e) Proposatutako garbiketa egutegia eta ordutegia:
   - Udalerrika.
   - Egutegiko egun bakoitzean atendituko diren udalerriak garbiketa-zerbitzua emango den ordenean.
   - Eskala egokian egindako xehetasun-planoak. Bertan zehaztuko dirá garbiketa-ibilbideak eta garbitutako edukiontziak.

f) Erreserbako ibilgailuak eta matxura kasuetan edo programatutako geldialdietan aurreikusitako ekintza plana.

g) Lana antolatzeko era (garbiketa-ibilbideen esleipena, etab.).

h) Garbiketa zerbitzua kontrolatzeko, garbituko diren edukiontziak identifikatzeko eta sor daitezkeen intzidentziei aurre egiteko aurreikusitako sistema.

i) Zerbitzua ahalik eta ondoen ezagutzeko beharrezkotzat jotzen diren datuak.

7. OLIO-EDUKIONTZIEN KONTSERBAZIO ETA MENTENTZEA

7.1.Xedea:

Zerbitzuaren eginkizuna mankomunitateak utzitako olio-edukiontzi guztien eta baita plegu honetan olio-edukiontzien hustuketa lanean erabilitako barruko upelen kontserbazio eta mantentze INTEGRALA egitea izango da, uneoro erabiltzeko modu egokian egon daitezen.

Kontratistaren obligazioa izango da olio-edukiontziek eta hustuketan erabilitako upelek eskatutako prebentziozko mantentze lanak eta konponkoketa-lan guztiak antoiatzea eta egitea.

7.2. Kontserbazio eta mantentze programa:

Kontratistak Mantentze Programa bat ezarriko du, edukiontzien eta upelen aldiroko mantentze orokorra egiteko, eta bertan zehaztuko ditu prebentziozko mantentze-lan guztiak.

Programatutako mantentze-lanen barruan gutxienez honako hauek sartuko dirá:

- Edukiontzien eta edukiontzien hustuketan erabilitako upelen egoera funtzionala eta kontserbazioa aldiro ikuskatzea.
- Barruko upelara iristeko bisagrak eta segurtasuneko itxigailuak ikuskatzea.
- Olioa sartzeko ahoetako tapa baskulanteak eta zarata gutxitzeko sistemak ikuskatzea.
- Edukiontzia lorzorura torlojuz lotzeko lau puntuak ikuskatzea, ekintza bandalikoetan irauli edo mugitu ez dezaten.
- Edozein osagai puskatu edo akastun ordezkatzea edo konpontzea.
- Mugimendua edo marruskadura jasaten duten osagaiak koipeztatzea.
- Edukiontziaren hainbat itsasgarri birjartzea irakurtzeko moduan ez daudenean edo

zahartu direlako edo bandalismo ekintzen ondoriozko kalteak jasaten dituztelako.

- Kolpeak edo inpaktuak jasateagatik mailatuta, desitxuratuta edo desdoituta dauden edukiontziaren zatiak zuzentzea.
- Urratuak edukitzeagatik marrak edo pintura edo materiala askatuta duten edukiontzietako zatiak zuzentzea.
- Edukiontzien fabrikatzaileekemandako kontserbazio eta mantentzea eskuliburuetan jasotako lanak.

Programatu gabeko mantentze lanean kasuan, ezusteko beharrak sortzen badira, kontratistak antzemandako arazoa gehienez ere 24 orduko epean konponduko du, mankomunitateko zerbitzu teknikoak abisua ematen duten unetik kontatzen hasita.

Edukiontzien eta upel metalikoen kontserbazio eta mantzentze lanak egiteko, kontratistak mantenuko furgoi bat jarriko du, behar bezalako prestakuntza duen langile batek atendituta, eta horretarako behar dituen tresneria, erramintak eta ordezko piezak dituena, puntúan bertan edozein prebentziozko lan edo konponketa egiteko.

7.3. Kontserbazio- eta mantentze-lanak egiteko tokia:

Kontserbazio- eta mantentze-lanak "bertan" egin ahal Izango dirA, hau da, edukiontziak dauden tokian bertan, baldin bidé publikoan lan hauek arazorik edo eragozpenik eragiten ez badute.

Bestela, kontserbazio- eta mantentze-lanak derrigorrez kontratistaren instalazio finkoetan egingo dira.

Zenbait kasutan, egin beharreko lana handia bada eta edukiontzi osoa kontratistaren instalazio finkoetara eramatea egokiagoa baldin bada, orduan beste edukiontzi batekin, berdin-berdina, ordezkatuko da.

7.4. Ordezko piezak:

Instalatutako edukiontzietzat kontratistak ordezko piezen behar adinako stocka izango du derrigorrez. Kontratistak bere gain hartuko ditu beharrezkoak diren ordezko piezak ez edukitzeagatik edukiontzien mantentze arruntean zein konponketan izan daitezkeen atzerapenen ondoriozko erantzukizunak.

Puskatutako osagaiak edo osagai akastunak ordezkatzeko edo konpontzeko ordezko piezak jatorrizkoak izango dirá beti, hau da, edukiontziak fabrikatzen dituenak hornitutakoak.

7.5. Kontserbazio- eta mantentze-zerbitzuaren kontrola:

Kontserbazio- eta mantentze-lan guztiak, programatutakoak eta programatu gabekoak. dokumentalki erregistratuko dirá. Hilero kontratistak mankomunitateari txostena bidaliko dio egindako kontserbazio- eta mantentze-lan guztiak zehaztuz, kontratatutako lanak írogatzeko.

7.6. Edukiontziak kontserbatu eta mantentzeko zerbitzuaren antolaketa:

Enpresa lizitatzaileei dagokie olio-edukiontziak eta bilketan erabilitako upel metalikoak kontserbatu eta mantentzeko zerbitzua emateko sistemarik eragingorrena proposatzea, lizitatzaile bakoitzak egokien deritzan baliabide materialekin eta pertsonalarekin.

Lizitatzaileek MEMORIA TEKNIKOAN adieraziko dute, xehetasun osoz, antolaketa-proiektua, baliabide

materialak eta pertsonala, gutxienez ondorengo atal hauek garatuz:

a) Kontserbazio eta Mantentze Plana, prebentziozkoa eta zuzentzailea. Egingo diren kontserbazio eta mantentze lañen deskribapen zorrotza eta egiteko moduaren deskribapena.
b) Zerbitzura bideratutako pertsonala.
c) Mantentze lanetarako furgoiaren deskribapena, bere ekipamenduak eta erramintak.
d) Upel metalikoen stockaren deskribapena.
e) Edukiontzien ordezko piezen stockaren deskribapena.
f) Zerbitzua ahalik eta ondoen ezagutzeko beharrezkotzat jotzen diren datuak.

8. EDUKI0NT7IAK MUGITU ETA TOKIALDATZEA

8.1.Xedea:

Kontratistak instalatuta dauden olio-edukontziak noizbehinka mugitu edo tokiz aldatuko ditu, zerbitzuak hala eskatzen duenean, inguruan obrak daudenean, asfaltatze-lanak daudenean, trafikoan aldaketak daudenean. ibilgailuentzako edo oinezkoentzako arrisku egoeretan, ekintza sozialak edo kulturarekin edo kirolarekin lotutako ospakizunak daudenean eta arrazoizko edo justifikatutako beste arrazoi batzuk direnean.

Horrelakoetan, kontratistak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko zerbitzu teknikoek agindutako epean edukiontziak mugitu edo tokialdatuko dituzte.

8.2. Edukiontziak mugitu eta tokialdatzeko zerbitzuaren antolaketa:

Enpresa lizitatzaileei dagokie olio-edukiontziak mugitu eta tokialdatzeko zerbitzua emateko sistemarik eragingorrena proposatzea, lizitatzaiie bakoitzak egokien deritzan baliabide materialekin eta pertsonalarekin.

Lizitatzaileek MEMORIA TEKNIKOAN adieraziko dute, xehetasun osoz, antolaketa-proiektua, baliabide materialak eta pertsonala eta zerbitzua emateko era.

9- PERTSONALA

Kontratistak kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez eskaintzeko beharrezkoak diren langileak edukiko ditu uneoro, Baldintza Tekniko Partikularren Orri **honetan** eta Klausula Adminístratibo Partikularren Orrian ezarrita irizpideen eta zehaztapenen arabera.

Lizitatzaileek, kontratu honen xede diren zerbitzuei buruz egindako antolaketa-azterketen ondorioz, beharrezkotzat jotzen dituzten plantilla eta emandako lanak zehaztuko dituzte, bi kategoria hauetan zaitutuz:

- Zuzeneko langileak
- Zeharkako langileak

Proposatutako personal hau izango da gutxienez kontratistak kontratuaren xede diren lanak gauzatzeko erabiliko dueña. Beharrezkoa bada, kontratistak personal hori handitu egin beharko du. zerbitzua behar bezaia emateko, eta horrek ez du esleipen-prezioa handitzea ekarriko.

Kontratistak kontratuaren xede den zerbitzua eraginkortasunez eskaintzen déla ziurtatzeko eta gaixotasun edo istripuengatiko bajek, baimenek, lan sindikalek, oporrek eta behar den bezaia justifikatutako arrazoiek eragindako egoerak, zein ezusteko bajak eta absentismoa estaltzeko, giza bitarteko nahikoa duela ziurtatuko du. Langileen baja horiek berehalakoan estaliko ditu kontratistak.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunítateak ez du erlazio juridikorik, laboralik edo beste inolako erlaziorik edukiko kontratistaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoenean, ez amaitzean, eta kontratistaren kontura izango dirá kontratu hau déla eta sor daitezkeen obligazio, kalteordain eta erantzukizun guztiak.

Kontratistak Lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasunarekin eta Higienearekin erlazionatutako indarreango xedapenak eta kontratuari aplikagarria zaion gaineratiko arautegia betetzeko betebeharra du eta mankomunítateak ez du erantzukizunik edukiko betebehar hori urratzeagatik.

Grebarik edo enpresarekin gatazkarik egonez gero, Debabarrena Eskualdeko Mankomunítateak edo eskuduntza duten beste organismo batzuk adierazitakoa bete eta ezartzen dituzten gutxieneko zerbitzuak eskaini beharko ditu enpresak.

Lizitatzaileek MEMORIA TEKNIKOAN pertsonalaren antolaketa eta kudeaketa zehaztuko dute. bereiztuz:

- Olioaren bilketa eta garraiatzera zuzendutako pertsonala.
- Olioaren egokitzapena egitera zuzendutako pertsonala.
- Edukiontziak garbitzera zuzendutako pertsonala.
- Edukiontziak mantentzera zuzendutako pertsonala.
- Edukiontziak mugitu eta tokialdatzera zuzendutako pertsonala.

Lizitatzaileek garatuko dituzten alderdiak:

a) Egindako azterketa honen emaitzaren arabera, kontratu honen xede diren lanak burutzeko beharrezkoak diren langileak, alderdi hauek adierazita:

   - Kategoria profesionala.
     Kategoria bakoitzari dagokion urteko ordainsaria. Kontzeptu guztiak (oinarrizko soldata, plusak, aparteko ordainsariak...), antzinatasuna eta hitzarmenetik kanpoko plusak eta enpresaren gizarte-kargak banakatuta aurkeztuko dirá.
   - Langile bakoitzaren urteko lan-jardunak.
     Urtean aurreikusitako absentismoa.
   - Kontratazio mota eta iraupena.
   - Kategoria bakoitzaren kasuan: urteko kostu unitarioa, lanaldiko eta lan egindako ordu bakoitzagatik.

b) Langileen postu betegabeen antolamendu-prozedura, baita aurreikusi ez diren kasuetan ere. Postua berehala beteko déla eta ordezko langileek egin beharreko lanak ondo ezagutzen dituztela ziurtatuko da.

c) Laneko segurtasun eta higienearekin, langileen prestakuntzarekin, enplegu-egonkortasunarekin eta abar erlazionatutako langileen kudeaketako hainbat alderdi.

10. OLIO-EDUKIONTZIAK KONTRATISTARI UZTEA

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak kontratistari, zerbitzua eman ahal izateko, sukaldeko olio erabilia botatzeko plegu honetan deskribatutako olio-edukiontzien erabilera utziko dio. Kontratistaren eskura jartzen diren edukiontzien inbentarioa eta erabilera lagatzeko egintza jasotzen dituen akta egingo da.

Edukiontziak kalean kokatuta egoteagatik, herritarrek erabiltzeagatik eta bilketa, garbiketa, mantentze eta tokialdatze lanengatik sor litezkeen erantzukizun guztiak kontratistaren kontura izango dira.

Kontratistak, bere eskaintzan, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak lagatako edukiontziak mantentzeko eta kontserbatzeko kostuak hartu beharko ditu kontuan.

Kontratua esleitu ondoren, kontratistak ezingo dio esijitu Administrazioari zerbitzua emateko utzi zaizkion edukiontziak aldatzea edo berritzea. Dena déla, kontratistak egokitzat jotzen dituen aldaketak eta hobekuntza teknikoak egin ahal izango ditu bere kontura, mankomunitateko Zerbitzu Teknikoen aurretiazko baimenarekin.

Kontratistak berari utzitako edukiontzi guztiak garbi eta kontserbazio egoera onean mantentzeko obligazioa dauka.

Kontratistaren betebeharra izango da edukiontzien garbiketa eta prebentziozko mantentzea eta konponketak antolatzea eta egitea, plegu honetan ezarritako baldintzetan, edukiontziak beti baldintza onean egon daitezen, operatibitate, segurtasun eta osasungarritasun-baldintzak betez, fabrikatzailearen mantenurako eta kontserbazioko eskuliburua aplikatuz eta lizitazíoan eskainitako Prebentziozko Mantentze Planarekin osatuz, beti ere arau tekniko ofizialak eta segurtasun arauak betez eta edozein kasutan jardubide egokiak jarraituz.

Egindako lanak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari esijitutako maiztasunarekin entregatuko zaizkion txostenetan adieraziko dira.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek, bere profesionalek edo lanak eskuordetzen diren profesionalek, aldiro ikuskatuko dute oilo-edukiontzien kontserbazio-egoera eta funtzionamendua, mantentze-eragiketen eraginkortasuna egiaztatzeko, eta kontratistak ikuskapen-lan horiek erraztuko ditu. eskatzen zaizkien datuak emango dituzte eta agintzen zaizkien kontrol-probak egingo dituzte. Ikuskapena egitean, mantentze-lanak egiten ez direla edo gaizki egiten direla ondorioztatzen bada, horiek egiteko edo zuzentzeko eska dezake, eta kontratistaren kontura izango da.

Edukiontzien mantentze eta kontserbazio lanek eragindako gastuak kontratistak ordainduko ditu.

Kontratua amaitzean, kontratistak utzitako edukiontziak itzuliko dizkio Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari, eta kontserbazio zein funtzionamendu egoera ezin bobean itzuliko dizkio gainera, erabilera arrunt batek eta denboraren iragateak berak eragindako narriadura gora behera. Horren akta egingo da, eta nahitaezko baldintza izango da kontratua likidatzeko. Bertan, edukiontziak eta horien kontserbazio- eta mantentze-egoera zehaztuko dira.

Kontratistak, utzitako edukiontziak ondo mantentzeko eta kontserbatzeko betebeharra bete duela ziurtatzeko, kontratua amaitu baino hiru (3) hilabete lehenago, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak erabakitzen duen Esku-hartze Teknikoa egingo da. Ildo horretan, kontratistaren

kontura izango dirá ikusten diren eta erabilera eta mantentze zaindu baten ondoriozko narriadura arrunta gainditzen duten akatsen konponketak eta aldaketak.

11. IBILGAILUAK ETA MAKINERIA

Kontratistak zerbitzua ondo emateko beharrezkoak diren baliabide material guztiak jarriko ditu.

Zerbitzuaren exekuziora bideratutako baliabideak, zerbitzuak behar adinako marjinarekin emateko modukoak direla ziurtatuko dute, lañen plana zorrotz betez eta sor daitezkeen ezustekoei aurre eginez.

Erabiliko diren baliabideak, zerbitzuaren eskakizunei aurre egiteko egokiak izango dira.

Kontratari atxikitutako baliabide material guztiak lanaldi mugatuan jarriko dira mankomunitatearen zerbitzura, hau da, zerbitzua ematen den unetan soilik.

Olioaren bilketan eta garraiatzean eta edukiontzien garbiketa eta mantenuan erabilitako ibilgailu guztiak, makineria eta erramintak eta olioa egokitu eta biltegiratzeko instalazioak zehatz mehatz deskribatuko dituzte lizitatzaileek MEMORIA TEKNIKOAN, ezaugarri teknikoak, ekipamenduak, aintzinatasuna eta abar adieraziz eta era guztietako planoak, krokisak, eskemak, argazkiak eta beharrezkotzat jotzen dituzten datuak emanez, ahalik eta hobekien ezagutzeko.

12.- ANTOLAKUNTZA ETA JARRAIPEN-SISTEMA

Proposatutako antolamenduaren barruan, lizitatzaileek gailu informatiko arinak aurreikusiko dituzte mankomunitateak eskatzen dituen datu guztiak garaiz emateko, egindako lanak frogatzeko eta kontratatutako zerbitzuaren gainean egokitzat jotzen diren kontrolei zuzen erantzuteko. Gailu eta sistema horiek, ¡nformatikoak edo bestelakoak, mankomunitateak dituenekin bateragarriak izango dira.

<u>Hilero bidali beharreko txostenak</u>:

- Hilero, kontratistak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari ondorengo datuak emango dizkio: hustutako edukiontziak, hustuketa-datak, bildutako olio kantitatea (kg.) udalerrika eta udalerri bakoitzean edukiontzika eta bilketan eta garraiatzean egon diren intzidentziak.

- Hilero, kontratistak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari ondorengo datuak emango dizkio: garbitutako edukiontziak, garbiketa-datak eta garbiketan egon diren intzidentziak.

- Hilero, kontratistak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari ondorengo datuak emango dizkio: kontserbazio eta mantentze lanak egin zaizkien edukiontziak, lañen datak eta egindako lanak.

Hilero emandako zerbitzuei dagokion faktura ordaindu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da goian adierazitako hiru txostenak bidaltzea.

<u>Hiruhilabetero bidali beharreko txostenak</u>:

- Hiruhilabetean behin, kontratistak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko eremuan bildutako olioa biodiesela fabrikatzeko plantara/plnetetara entregatu déla egiaztatuko duen dokumentuak aurkeztuko dizkio mankomunitateari.

Beste txoten batzuk:

Horretaz gaiz, kontratistak mankomunitateak aginduta zerbitzuarekin lotutako txosten eta azterketak prestatzeko obiigazioa ¡zango du ezarritako epean.

Aipatutako txosten guztiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan idatziko dirá.

Kontratatutako zerbitzua Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen ikuskapen eta zaintzapean egongo da uneoro, bere Zerbitzu Teknikoen bitartez. Hauek, edozein unetan eta tokitan egin ahal izango dituzte egokitzat jotzen dituzten ikuskapenak. Mankomunitateak izendatutako ikuskariak zerbitzuko ¡bilgailuetara eta lokaletara sarbidea izango du eta eskatutako datuak emango zaizkio. Mankomunitateak, egindako ikuskapenaren arabera, agindu eta jarraibide zehatzak eman ahal izango ditu eta kontratistak derrigorrez bete beharko ditu.

Kontratistak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eskatutako edozein dokumentu aurkeztu beharko du eta bereziki, aseguru sozialak, lan arriskuen prebentzioarekin lotutako dokumentazioa, lan-istripuak, aseguru-polizak, ibilgailuen garraio-txartelak, olioaren trazabilitatearekin lotutako dokumentazioa eta orohar, erantzukizun subsidiarioa ekiditeko edozien ekimen onartzea.

Lizitatzaileek MEMORIA TEKNIKOAN antolakuntza eta jarraipen-sistema zehaztuko dute.

13. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

13.1. Formula bat aplikatuta puntuatzen diren irizpideak (automatikoak): Gehienez, 51,00 puntu

A) Eskaintza ekonomikoa: Kontzeptu horrengatik 47 puntu emango dira gehienez.

Puntuak banatzeko formulan, i eskaintza bakoitzaren balioetsi beharreko preziotzat hartuko da lizitatzaile bakoitzak kontratuaren xede den zerbitzua bi urtez eskaintzeko duen prezioa, BEZa barne.

P1 eta P2 puntuak definitzen dira, eta horien artean eskaintza guztiak honela baloratuko dira:

P2 puntua – Abszisetan dagokiona, gehieneko bajan; ordenan, gehieneko puntuazioa emango zaio, 47 puntu.

P1 puntua – Zero beheko abzisetan dagokiona, zero puntuko ordenan emango zaiona.

Eskaintza bakoitzari dagozkion gainerako bajei (Bi) P1 eta P2 puntuen arteko abszisetako interpolazio linealagatik ordenan dagozkien puntuak emango zaizkie.

Baja (Bi) izango da kontratuaren xede den zerbitzua emateagatiko lizitazioaren oinarrizko prezioaren (bi urtez behin) eta eskaintzaren prezioaren (bi urtez behin) arteko aldea, emaitza hori zati lizitazioaren oinarrizko prezioa (bi urtez behin), BEZa barne.

Non i k 1etik n-ra bitarteko balioak hartzen dituen, n lehiaketa honetan onartutako eskaintza kopurua izanik.

Proposamen ekonomiko anormalak edo neurriz kanpokoak

Proposamen ekonomiko batek ausarkeriazko baja duela eta, ondorioz, ezohiko edo neurriz kanpoko

proposamen ekonomiko bat dela ulertzen da, i eskaintza honi dagokion i (Bi) baja lehiaketa honetan onartutako eskaintza guztien batez besteko beherapena baino 10 puntu handiagoa denean; izan ere, I. eskaintzak 1etik n-rako balioak hartzen ditu, eta n da baloratzeko onartutako eskaintza kopurua.

B) Edukiontzien garbiketa-maiztasuna: kontzeptu honengatik gehienez 4 puntu emango dira**.**

- Edukiontzi guztiak garbitzeko maiztasuna 2 hilean behin: 0 puntu
- Edukiontzi guztiak garbitzeko maiztasuna hilero: 2 puntu
- Edukiontzi guztiak garbitzeko maiztasuna 15 egunetik behin: 3 puntu
- Edukiontzi guztiak garbitzeko maiztasuna 7 egunetik behin: 4 puntu

Kontratua esleitzeko irizpide hori betetzen dela egiaztatu beharko da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatera bidali beharreko lan-parteen bidez, kontratistak eskaini duen maiztasunarekin.

13.2 BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK: Gehienez, 49,00 PUNTU

Zerbitzuen kalitate teknikoa: 49 puntu

Jarraian adieraziko diren irizpideetan lizitatzaileek idatzitako Zerbitzuak Gauzatzeko Proiektutik (MEMORIA TEKNIKOA) atera daitezkeen ondorioak eta kalitatea hartuko dira kontua, kontratuaren xede diren lanak antolatzkeo eta eskaintzeko moduarekin, eta proposatutako giza baliabideei eta baliabide materialei lotutakoak, zerbitzuan kalitate ezin hobea eta etekin handiena lortzeko. **Gehienez 49 puntu.**

1. Irizpidea. Sukaldeko olio erabiliaren bilketa eta garraiatze zerbitzua antolatzeko eta emateko modua: 23 puntu

1.1. Erabiliko diren bilketa eta garraiatze ekipoak, ibilgailu eta langileei dagokionean: Proposatutako baliabideekin olioa nola Bildu eta garraiatuko den. Erabiliko diren bilketako ibilgailuen kalitate eta ezaugarri teknikoak. Ibilgailuaren ahalmena garraia ditzakeen upel kopuruari dagokionean. Upel beteak hutsik dauden upelekin ordezkatzeko upel hutsen stocka. Hutsik dauden upelak ibilgailutik olio-edukiontzira eramateko eta betetako upelak edukiontzitik bilketako ibilgailura eramateko erabiliko duen Sistema. Betetako upelak bilketako ibilgailuan kargatzeko erabiliko duen Sistema. Bilketa zerbitzuan arituko den pertsonalaren deskribapena eta emandako lanak: **9 puntu**

1.2. Proposatutako bilketa-ibilbideak (ibilbideak, kilometroak, beharko duen denbora, hustutako edukiontzi kopurura, bildutako olioa kantitatea kg.tan…) eta hauen justifikazioa. Bilketa egiteko proposatutako egutegia eta ordutegia. Erreserbako ibilgailuak eta matxura kasuetan edo programatutako geldialdietan aurreikusitako ekintza plana: **8 puntu**

1.3. Lana antolatzeko era (ibilbideen esleipena, eta.). bilketa zerbitzua kontrolatzeko, edukiontziak identifikatzeko eta sor daitezkeen intzidentziei aurre egiteko aurreikusitako sistema: **4 puntu**

1.4. Ustekabean olio-isurketa ematen bada aurre egiteko aurreikusitako ekintza plana. Eskatu ez diren beste hondakin batzuk antzemanez gero aurre egiteko ekintza plana: **2 puntu**

2. Irizpidea. Sukaldeko olio erabiliaren prozesamendu zerbitzua antolatzeko eta emateko modua: 10 puntu

2.1. Bildutako sukaldeko olio erabiliaren egokitzapena eta biltegiratze egingo den plantak dituen instalakuntzak eta makineria. Olioa egokitzeko jarraituko den prozesua: **5 puntu**

2.2. Olioa ontziratzeko erabilitako plastikozko, beirazko (eta abar) ontzien kudeaketa. Olio edukiontziaren barruan edo bere inguruan utzitako eskatu ez diren beste hondakin batzuen kudeaketa. Olioaren dekantazio eta iragazketan sortutako ur zikinen eta hondakin organikoen kudeaketa: **3 puntu**

2.3. Bildutako olioaren pisaketa-sistema. Upen metalikoen garbiketa egiteko modua: **2 puntu**

3. Irizpidea. Olio-edukiontzien eta aldamenaren garbiketa zerbitzua antolatzeko eta emateko modua: 8 puntu

3.1. Erabiliko den garbiketa ekipoa, ibilgailu eta langileei dagokionean. Erabiliko diren produktuak (garbitzaileak, koipegabetzaileak, xurgatzaileak…). Proposatutako baliabideekin edukiontzien eta aldamenaren garbiketa egiteko modua: **4 puntu**

3.2. Proposatutako garbiketa-ibilbideak (ibilbideak, kilometroak, beharko duen denbora, garbitutako edukiontzi kopurura, bildutako olioa kantitatea kg.tan…) eta hauen justifikazioa. Proposatutako garbiketa egutegia eta ordutegia. Erreserbako ibilgailuak eta matxura kasuetan edo programatutako geldialdietan aurreikusitako ekintza plana: **3 puntu**

3.3. Lana antolatzeko era (garbiketako ibilbideen esleipena, etab.). Garbiketa zerbitzua kontrolatzeko, garbituko diren edukiontziak identifikatzeko eta sor daitezkeen intzidentziei aurre egiteko aurreikusitako sistema: **Puntu 1**

4. Irizpidea. Olio-edukiontziak eta bilketan erabilitako upel metalikoak kontserbatu eta mantentzeko zerbitzua antolatzeko eta emateko modua: 6 puntu

4.1. Proposatutako Kontserbazio eta Mantentze Plana, prebentziozkoa eta zuzentzailea: **2 puntu**

4.2. Zerbitzura zuzendutako pertsonala, mantentze lanetarako furgoia, bere ekipamenduak eta erramintak: **3 puntu**

4.3. Olio-edukiontzien ordezko piezen stocka: **Puntu 1**

5. Irizpidea. Olio-edukiontziak mugitu eta tokialdatzeko zerbitzua antolatzeko eta emateko modua: 2 puntu

<u>IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK, BERDINKETAK DESEGITEKO</u>

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, honela desegingo da:
.- Aintzat hartuko da zein enpresak duen bere plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterkerian

dauden langileen portzentaje handiena. Portzentajeak berberak baldin badira, aintzat hartuko da enpresetako zeinek duen bere plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo gizarte-bazterkerian dauden langileen kopuru handiena.

Hala ere berdinketa gertatzen bada, plantillan behin-behineko kontratuen portzentaje txikiena duen enpresari emango zaio lehentasuna.

Hala ere berdinketa gertatzen bada, plantillan emakume enplegatuen portzentaje handiena duen enpresari emango zaio lehentasuna.

Eta hala ere berdinketa gertatzen bada, zozketa egingo da, betiere aurreko irizpideak aplikatuz ez bada berdinketa desegin.

14. INFORMAZIO OSAGARRIA

14.1. Hautatutako formularen justifikazioa

Eskaintza ekonomikorako

Interpolazio linealaren bidez puntuak banatzen dituen formula P1 eta P2 puntuen artean dago, non P1 abzisetan zero puntu ematen zaion bajari dagokio, eta P2 abszisetan gehieneko bajari dagokio, eta ordenatuetan gehieneko puntuazioa emango zaio, 47,00 puntukoa. Eta eskaintza bakoitzari dagozkion gainerako bajei P1 eta P2 puntuen arteko abszisetako interpolazio linealaren bidez ordenan dagozkien puntuak emango zaizkie.

Horrela, eskaintzarik onenari gehienezko puntuazioa ematen zaio, puntu guztiak banatzen dira eta lizitatzaileek egin beharreko ahalegina saritzen da.

Lizitatzaile bakoitzaren edukiontziak garbitzeko maiztasunari puntuak esleitzeko

Puntuak esleitzeko, puntuak modu proportzionalean esleitzen dituen taula bat erabiltzea erabaki da, gutxienez bi hilez behin egin beharreko garbiketa-eskaintzetatik abiatuta.

15. LIZITAZIO-PREZIOAK KALKULATZEKO METODOA:

Kostuak kalkulatzeko, kontuan hartu da haien banaketa, honela, eta kostua osatzen duten partiden zama: Zuzeneko langileen gastua, %40; zeharkako langileen gastua, %13; horniduren gastua, guztira, %5; gastu finantzarioa, %5; ibilgetuaren amortizazioa %25; gastu orokorrak, %6; eta etekin industriala %6. Hau da, zuzeneko gastuak, guztizko kostuaren %70; zeharkakoak, %18; eta beste gastu batzuk, %12.

Olioaren bilketaren zerbitzuaren kostuaren kalkulua								
Kostuak kontzeptuen arabera xehatuta	Kostuetan parte hartzearen %				Kostuetan parte hartzea, eurotan			
	Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk		Zuzenekoak	Zeharkakoak	Beste gastu batzuk	
Langileen gastuak, ZUL	0,4				7.422,80	0,00	0,00	0,00
Langileen gastuak, ZEL		0,13			0,00	2.412,41	0,00	0,00
Hornidurak	0,05				927,85	0,00	0,00	0,00
Gastu finantzarioa		0,05			0,00	927,85	0,00	0,00
Ibilgetuaren amortizazioa	0,25				4.639,25	0,00	0,00	0,00
Gastu orokorrak			0,06		0,00	0,00	1.113,42	0,00
Etekin industriala				0,06	0,00	0,00	0,00	1.113,42
GUZTIRA	0,7	0,18	0,06	0,06	12.989,90	3.340,26	1.113,42	1.1113,42
	1,00				18.557,00			

KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratuaren xedearen helburua da kontratua gauzatzeak eragin ziezaiekeen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea, hondakinen sorreran prebentzioa sustatuz edo, hala badagokio, hondakinen kudeaketa lehentasun-ordena honen arabera eginez: prebentzioa, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta beste balorizazio-mota batzuk, balorazio energetikoa barne. Arrazoi teknikoak edo ekonomikoak direla-eta prozedura horiek aplikatzerik ez badago, hondakinak desagerrarazi egingo dira, ingurumenean duten eragina saihesteko edo ahalik eta gehien murrizteko.

Esleipendunak hori ziurtatuko du, ISCC ziurtagiriaren bidez edo erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, eta dokumentazio errekerimendua betetzeko fasean eskatuko zaio esleipendun proposatuari. Kontratua gauzatzeko fasean, baldintza hori betetzen dela egiaztatuko da.

I. ERANSKINA. OHAR ARGIGARRIAK

Agiri honen 5.6 klausulan jasotako kasuan SANDACH araudia ez aplikatzeari buruzko interpretazioa egin behar da. Klausula horrek bioerregaiaren ekoizpena aurreikusten du sukaldeko olioaren helmuga gisa.

Kasu horretan, sukaldeko olio erabilia bioerregaia ekoizteko erabiltzen bada, ez da aplikatzen SANDACH araudia, eta baldintza teknikoen agirian baimentzen den xede bakarra izanik.